**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BIZKAIKO ATLETISMO FEDERAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, 2024-2027 ALDIAN FUNTZIO PUBLIKO ADMINISTRATIBOAK GARATZEKO.**

Bilbon, sinadura elektronikoaren egunean

Alde batetik, Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatua; Arrizabalaga andreak honako arau hauek ematen dizkioten eskumenak baliatuz dihardu: batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Araua, eta, bestetik, 131/2020 Foru Dekretua, abenduaren 29koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duena.

Eta bestetik, Ander Salinero Mugica jn., Bizkaiko Atletismo Federazioko presidentea; Salinero jaunak Bizkaiko Atletismo Federazioaren izenean (IFZ G48195648) eta haren ordezkari gisa jardun du, 2007ko martxoaren 27ko BAOn argitaratutako Estatutuekin bat.

Alderdi biek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta ondorioz honako hau

## ADIERAZTEN DUTE

<u>LEHENENGOA</u>.- Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 4.h) artikuluarekin bat etorriz, "lurralde historikoetako foru-organoei dagokie, beren lurralde-eremuan, Lurralde historikoko kirol-federazioak onartzea, haiei laguntzea, finantzatzea, haietan esku hartzea eta kontrolatzea beren funtzio publikoak betetzen dituztela bermatzeko, betiere beren jarduera pribatua kaltetu gabe".

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA FEDERACIÓN ATLÉTICA VIZCAÍNA PARA EL DESARROLLO DE LAS FUNCIONES PÚBLICAS DE CARÁCTER ADMINISTRATIVO EN EL PERIODO 2024-2027.**

En Bilbao, en la fecha de la firma electrónica

De una parte, Dña. Leixuri Arrizabalaga Arruza, diputada foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, actuando conforme a las facultades conferidas por la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y por el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte.

Y, de otra, D. Ander Salinero Mugica, como presidente de la Federación Atlética Vizcaína (NIF G48195648), actuando en nombre y representación de la Federación Atlética Vizcaína, en virtud de sus Estatutos publicados en el BOB de fecha 27 de marzo de 2007.

Las dos partes se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACION, y a tal efecto

## MANIFIESTAN

<u>PRIMERO</u>.- Que, de acuerdo con el artículo, 4.h) de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, "corresponde a los órganos forales de los territorios históricos, en su respectivo ámbito territorial, la aprobación de las federaciones deportivas territoriales, así como su asistencia, financiación, intervención y control para garantizar el cumplimiento de sus funciones públicas, sin menoscabo de su actividad privada".

BIGARRENA.- Indarreko legeriarekin bat etorriz, lurraldeetako kirol federazioek eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzako hitzarmenak sina ditzakete, helburuak, kirol egitarauak, aurrekontuak eta berez eskuordetu zaizkien funtzio publikoekin zuzenean zerikusia duten gainerako gaiak zehazteko. Izaera juridiko-administratiboa izango dute.

SEGUNDO.- Que, de conformidad con la legislación vigente, las Federaciones Deportivas Territoriales y la Diputación Foral de Bizkaia pueden suscribir convenios de colaboración al objeto de determinar los objetivos, programas deportivos, presupuestos y demás aspectos directamente relacionados con las funciones públicas delegadas. Tales convenios tendrán naturaleza jurídico-administrativa.

Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesten duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bosgarren xedapen gehigarriaren bigarren zenbakian hauxe xedatu da: Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmenak egin ahal izango ditu zuzenbide pribatuari loturiko pertsona fisiko eta juridikoekin, baldin eta haren xedea ez badago Sektore Publikoko Kontratuen Legean edo administrazio-arau berezietan araututako kontratuen xedearen barruan.

La Disposición Adicional Quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, en su apartado 2 señala que la Diputación Foral de Bizkaia podrá celebrar convenios con personas físicas o jurídicas sujetas a derecho privado, siempre que su objeto no esté comprendido en el de los contratos regulados en la ley de Contratos del Sector Público o en normas administrativas especiales.

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuen Legeak onesten duen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, Lege horren 6.2 artikuluan adierazten denez, haren aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko zein edo juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago sartuta Lege honetan edo nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean.

El presente Convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.2 quedan excluidos del ámbito de dicha Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, Hitzarmen honek genero-ikuspegia jasotzen du, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este Convenio incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

HIRUGARRENA.- Administrazio-funtzio publikoei dagokienez, Euskadiko jarduera fisikoari eta kirolari

TERCERO.- En relación con las funciones públicas de carácter administrativo, el artículo 39 de la Ley

buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 39. artikuluak honako hau ezartzen du:

*“1.- Kirol-federazioek honako administrazio-funtzio publiko hauek beteko dituzte:*

*a) Lehiaketa ofizialak kalifikatzea, antolatzea eta baimentzea.*

*b) Federazio-lizentziak ematea, ukatzea, ezereztea eta antzekoak egitea.*

*c) Federazioen hauteskunde-prozesuak kontrolatzea.*

*d) Kirol-arloko diziplina-ahala baliatzea.*

*e) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak betearaztea.*

*f) Administrazio publikoarekin batera parte hartzea eta elkarlanean aritzea kirol programak garatzen, batez ere goimailako kirolarientzako programetan, etorkizun handiko kirolarientzako programetan eta eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan.*

*g) Beren estatutuak eta lege hau garatzeko xedapenetan zehazten diren erregelamenduak onartzea.*

*h) Euskal kirolaren ordezkaritza antolatzea Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan.*

*i) Erregelamendu bidez eskuordetu daitekeen beste edozein funtzio publiko.*

*2.- Kirol-arloan eskumena duten administrazio publikoek beharrezkoak diren finantzaketa eta baliabideak eman beharko dizkiete kirol-federazioei aurreko atalean zerrendatutako funtzio publikoak eta lege honen ondoriozko betebehar guztiak behar bezala betetzen direla bermatzeko.*

*3.- Kirol-federazioek ezin izango dituzte ezein kasutan eskuordetu beren esku utzitako funtzio publikoak administrazio eskudunak hala baimendu gabe.*

*4.- Lurralde-federazioek eta euskal federazioek beren funtzioak beteko dituzte, hurrenez hurren, kirol-arloko*

2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco establece lo siguiente:

*“1.- Las Federaciones deportivas ejercerán las siguientes funciones públicas de carácter administrativo:*

*a) La calificación, ordenación, y autorización de las competiciones oficiales.*

*b) La emisión, denegación, cancelación, suspensión y actos análogos relativos a las licencias federativas.*

*c) El control de los procesos electorales federativos.*

*d) El ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva.*

*e) La ejecución de las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva.*

*f) La participación y colaboración con la Administración Pública en el desarrollo de sus programas deportivos, en especial en los programas dirigidos a deportistas de alto nivel, en los programas para deportistas promesas y en los programas de actividad física y deporte en edad escolar.*

*g) La aprobación de sus estatutos y de aquellos reglamentos que se definan en las disposiciones de desarrollo de esta ley.*

*h) La ordenación de la representación del deporte vasco en las competiciones estatales e internacionales.*

*i) Cualesquiera otras funciones públicas que puedan ser objeto de delegación por vía reglamentaria.*

*2.- Las administraciones públicas con competencias en la materia deben dotar a las federaciones deportivas de la financiación y de los recursos necesarios para garantizar el adecuado ejercicio de las funciones públicas delegadas enumeradas en el apartado anterior y de todas las obligaciones derivadas de la presente ley.*

*3.- En ningún caso las federaciones deportivas podrán delegar, sin autorización de la administración competente, el ejercicio de las funciones públicas encomendadas.*

*4.- Las federaciones territoriales y vascas desarrollarán sus funciones en colaboración, respectivamente, con los*

*eskumena duten lurralde historikoetako foru-organoekin eta Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailarekin lankidetzan."*

*órganos forales de los territorios históricos y con el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competentes en materia deportiva."*

Hitzarmen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Federazioaren betebeharrak biltzen ditu, eskuordetutako funtzio publikoak egoki kudeatzeko, salbu eta eskola kiroleko programetan parte hartzeari eta laguntzeari dagokiona, zeina arautua dagoen jada aldeen arteko aparteko hitzarmenaren bidez.

El presente Convenio establece las obligaciones que contraen tanto la Federación como la Diputación Foral de Bizkaia para una correcta gestión de las funciones públicas delegadas, salvo la relativa a la participación y colaboración en los programas de deporte escolar, que ya cuentan con un convenio específico entre las partes.

Bestalde, artikulu berdinaren 6.b) atalak adierazten du izaera pribatua dutela lehiaketaren antolaketari, inskripzioei, jaitsierei, igoerei eta haien ondoriozko gainerako gorabeherak, diziplina-gaiek izan ezik. Kontuan hartuta 39. artikuluko 2. puntuak xedatzen duela administrazio publikoek beharrezko baliabideak eman behar dizkietela federazioei eskuordetutako funtzio publikoak eta lege honen ondoriozko betebehar guztiak behar bezala betetzen dituztela bermatzeko, hitzarmen honetan lehiaketa ofizialak antolatzearekin lotutako federazio-jarduera barne hartzen da diruz lagundu daitekeen jarduera moduan.

Por su parte, el punto 6.b) del mismo artículo indica que tienen naturaleza privada las cuestiones relativas a la organización de la competición, inscripciones, descensos, ascensos y demás vicisitudes derivadas de aquellas, salvo los asuntos disciplinarios. Considerando que el punto 2 del artículo 39 dispone que las administraciones públicas deben dotar a las federaciones de los recursos necesarios para garantizar el adecuado ejercicio tanto de las funciones públicas delegadas como de todas las obligaciones derivadas de la presente ley, se incluye entre las actividades subvencionables mediante el presente convenio la actividad federativa relacionada con la organización de competiciones oficiales.

Euskadiko jarduera fisikoari eta kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legean eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan ezarritako obligazioak betetzeko, federazioak bere gain hartzen ditu hirugarren klausulan ezarritako betebeharrak.

Con el propósito de cumplir con las obligaciones establecidas en la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco y en el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, la federación asume las obligaciones fijadas en la cláusula tercera.

Betebehar horien artean, aipatutako dekretuaren 169. artikuluak adierazten du federazioek emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekintza positiboko planak taxutu eta onartu beharko dituztela; 170. artikuluak, berriz, xedatzen du foru organoek behar bezalako laguntza teknikoa eta beharrezko baliabideak eskuratu beharko dizkietela emakumeen eta gizonen berdintasunean helburu komuna lortzeko.

Entre estas obligaciones, el artículo 169 del mencionado decreto señala que las federaciones deberán elaborar y aprobar planes de acción positiva para la igualdad de mujeres y hombres, mientras que el artículo 170 dispone que los órganos forales deberán proporcionar la adecuada asistencia técnica y los medios necesarios para la consecución del objetivo común en la igualdad de mujeres y hombres.

Horrela, aipatutako arauetan ezarritakoa betetze aldera, Kirol Zerbitzuak diruz lagunduko dio federazioari, adostutako urtean berdintasun-plana egin dezan.

Así, en aras de dar cumplimiento a lo establecido en los preceptos señalados, el Servicio de Deportes contribuirá económicamente con la federación para que esta realice su plan de igualdad en la anualidad acordada.

LAUGARRENA.- Hitzarmen hau sinatzen duen Federazioak estatutuak eta araudiak Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 legean xedatutakoaren arabera dauzka onetsita eta Legeak ezarritako administrazio funtzio publikoak egikaritzen dituela.

BOSGARRENA.- Erakundeak adierazten du ez duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan jasotako debekurik.

SEIGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duten erakundeak ados daude Hitzarmenaren edukiarekin, eta klausula hauen arabera formalizatzen dute Hitzarmena:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kiroleko Sailaren eta aipatutako Federazioaren artean sinatzekoa den Lankidetza-hitzarmen honen xedea hau da: 2024, 2025, 2026 eta 2027. urteetan, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 4.h) artikuluan xedatutakoa betetzea eta Federazioak aipatutako legearen 39. artikuluko funtzio publiko administratiboak egitea.

BIGARRENA.- Federazioak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuordetzaz Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 39. artikuluan xedatutako administrazio funtzio publikoak betetzea.

Zehazki, Hitzarmen honen klausulekin bat eta 2024, 2025, 2026 eta 2027ko ekitaldietan, honako administrazio funtzio publikoa egikarituko du:

Federazio-lizentziak ematea, ukatzea, ezereztea eta antzekoak egitea.

CUARTO.- Que la Federación firmante tiene aprobados los estatutos y reglamentos federativos de acuerdo con lo dispuesto por la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, y actúa en ejercicio de las citadas funciones públicas de carácter administrativo contempladas por la Ley.

QUINTO.- Que la entidad declara que no se halla incursa en ninguna de las prohibiciones recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

SEXTO.- Que habiéndose alcanzado un acuerdo entre las entidades convenientes sobre el alcance de dicho Convenio, lo formalizan con sujeción a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- El objeto del presente Convenio de Colaboración a suscribir entre el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia y la mencionada Federación durante los ejercicios 2024, 2025, 2026 y 2027 es el cumplimiento de lo dispuesto por el artículo 4.h) de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, y la realización, por parte de dicha Federación, de las funciones públicas de carácter administrativo del artículo 39 de la Ley mencionada ley.

SEGUNDA.- La Federación se compromete a:

1.- Realizar, por delegación de la Diputación Foral de Bizkaia, las funciones públicas de carácter administrativo contempladas en el artículo 39 de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco.

En concreto, desarrollará, de acuerdo con las cláusulas del presente Convenio y en los ejercicios 2024, 2025, 2026 y 2027, la siguiente función pública de carácter administrativo:

La emisión, denegación, cancelación, suspensión y actos análogos relativos a las licencias federativas.

Era berean, Federazioak konpromisoa hartzen du lehiaketaren antolaketari, inskripzioei, jaitsierei, igoerei eta haien ondoriozko gainerako gorabeherei buruzko gaiak garatzeko, diziplina-gaiak izan ezik.

Asimismo, la Federación se compromete a desarrollar las cuestiones relativas a la organización de la competición, inscripciones, descensos, ascensos y demás vicisitudes derivadas de aquellas, salvo los asuntos disciplinarios.

Lehenengo atalean aurreikusitako helburuetarako, Federazioak honako aurrekontu osoa duen proiektua aurkeztu du:

- 2024. urtea: 65.500,00 €

- 2025. urtea: 62.500,00 €

- 2026. urtea: 62.500,00 €

- 2027. urtea: 62.500,00 €

Para los cometidos previstos en este apartado 1, la Federación ha presentado un proyecto que cuenta con el siguiente presupuesto total:

- Ejercicio 2024: 65.500,00 €

- Ejercicio 2025: 62.500,00 €

- Ejercicio 2026: 62.500,00 €

- Ejercicio 2027: 62.500,00 €

2024ko urteari dagokion aurrekontuaren barruan, federazioak hirugarren klausulan aurreikusitako berdintasun plana egiteko gastua sartzen du.

Dentro del presupuesto correspondiente a la anualidad de 2024 la federación incluye el gasto para elaborar el plan de igualdad previsto en la cláusula tercera.

2.- Federazioak ez du erabiliko hizkera sexistarik dokumentuetan edo ikus-entzunezkoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsonei buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasoko ditu, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikuluak.

2.- La Federación deberá asumir el uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) en cualquier soporte escrito o digital, y desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que, en su caso, se genere, todo ello al amparo del artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

3.- Euskadiko jarduera fisikoari eta kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 44. artikuluan hizkuntza ofizialei buruz xedatutakoa betetzea. Artikuluak xedatzen duenez, kirol-federazioek bi hizkuntza ofizialen erabilera errespetatu behar dute dokumentu ezberdinetan, hala nola, federazio-lizentzietan, txarteletan, agirietan, estatutuetan, erregelamenduetan eta abarretan.

3.- Cumplir con lo dispuesto por el artículo 44 de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco sobre lenguas oficiales. El artículo dispone que las federaciones deportivas quedan obligadas a respetar la utilización de las dos lenguas oficiales en documentos como las licencias federativas, tarjetas, carnés, estatutos, reglamentos etc.

4.- Dokumentu honetan jasotako jarduerak aipatzen diren dokumentazio eta akta guztietan adierazi beharko da Bizkaiko Foru Aldundia dela antolatzailea; horrez gainera, irudi korporatiboa agertu behar da, zeina Aldundiak berak emango duen.

4.- En toda la documentación y actas en que se haga mención de las actividades contempladas en el presente documento deberá reflejarse que la organización corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, y deberá figurar la imagen corporativa que la propia Diputación facilitará.

5.- Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta erakundearen gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).

6.- Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduerak onartzea.

Aldez aurretik errekerimendua eginda, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari ematea Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan aurreikusitako betebeharrak benetan betetzeko beharrezkoa den informazioa, hori guztia Foru Arau horren 2.4 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz.

7.- Aurreko betebeharretako edozein betetzen ez bada, Federazioak ehuneko hauek galduko ditu:

A) 1. paragrafoan jasotako administrazio izaerako funtzio publikoa ez betetzeagatik: % 8.

B) 2.etik 5.era bitarteko paragrafoetako edozein ez betetzeagatik: % 25.

C) 6. atala ez betetzeagatik: % 100.

D) Lehiaketen antolaketari, inskripzioei, jaitsierei, igoerei eta haien ondoriozko gainerako gorabeherei buruzko gaiak ez garatzeagatik, diziplina-gaiak izan ezik: % 92.

A), B), C) eta D) letretan aurreikusitako deskontatu beharreko ehunekoak adostutako kontraprestazio ekonomikoaren zenbatekori aplikatuko zaizkio, ez-betetzea gertatzen den urteko zenbatekoari dagozkionak.

Kontraprestazioa ordaindu bada, hura edo dagokion zati proportzionala itzultzeko eskatuko zaio.

Edonola ere, dagokion kopurua Foru Ogasunari itzultzeko eskaera Kirol Zerbitzuak egingo du, 6.

5.- Colaborar con el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte en aquellos supuestos en que le sea requerido, aportando cualquier tipo de información relativa al ámbito de la entidad (estudios, encuestas, datos estadísticos, etc.).

6.- Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen los Departamentos Forales de Euskera, Cultura y Deporte y de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Previo requerimiento, suministrar al Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia, la información que sea necesaria para el cumplimiento efectivo por parte de ésta de las obligaciones previstas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, todo ello de acuerdo con lo señalado en el artículo 2.4 de esa Norma Foral.

7.- En el supuesto de incumplimiento de cualquiera de las obligaciones anteriores, la Federación perderá los siguientes porcentajes:

A) Por el incumplimiento de la función pública de carácter administrativo, recogida en el apartado 1: 8 %.

B) Por el incumplimiento de cualquiera de los apartados 2 al 5: 25 %.

C) Por el incumplimiento del apartado 6: 100 %.

D) Por no desarrollar las cuestiones relativas a la organización de la competición, inscripciones, descensos, ascensos y demás vicisitudes de aquellas, salvo los asuntos disciplinarios: 92 %.

Los porcentajes a descontar previstos en las letras A), B), C) y D) recaerán sobre el importe de la contraprestación económica acordada, referidos al importe de la anualidad en la que se produzca el incumplimiento.

En el supuesto de que la contraprestación hubiera sido abonada, se le exigirá la devolución de la misma o de la parte proporcional que corresponda.

En todo caso, el requerimiento para la devolución a la Hacienda Foral de la cantidad que corresponda se realizará desde el Servicio de Deportes, a propuesta

klausulan ezarritako Jarraipen Batzordeak proposatuta.

**HIRUGARRENA.-** Bigarren klausulan ezarritakoaz gain, Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legean eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan xedatutakoa betez, federazioak betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

1.- 2025eko abenduaren 31 baino lehen, kirol inklusiboaren batzordea eratu dela egiaztatzen duen agiria aurkeztea.

2.- 2024ko abenduaren 31 baino lehen, berdintasun batzordea eratu dela egiaztatzen duen agiria aurkeztea.

3.- 2024ko abenduaren 31 baino lehen, federazioaren kirol zuzendaritza bere gain hartzen duen organoa zein den jasotzen duen bilkura-akta entregatzea.

4.- 2024ko abenduaren 31 baino lehen, batzordeak edo batzarrak onartutako berdintasun-plana aurkeztea. Planak atal espezifiko bat izan beharko du sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko.

5.- 2025eko abenduaren 31 baino lehen legedi berrira egokitutako estatutuak entregatzea.

6.- Haurrak eta nerabeak modu integralean babesteko jarduera-protokolo bat ematea. Gainera, izendatutako babes ordezkaria nor den adierazten duen dokumentu bat helarazi beharko dute.

7.- 2024ko abenduaren 31 baino lehen betetzea Euskadiko jarduera fisikoari eta kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 22. artikuluan gardentasunaren arloan ezarritakoa.

Aurreko betebeharretako edozein betetzen ez bada, Federazioak ehuneko hauek galduko ditu:

A) 1.etik 3.era bitarteko paragrafoetako edozein atal ez betetzeagatik: 25 %.

de la Comisión de Seguimiento establecida en la cláusula 6ª.

**TERCERA.-** Además de lo establecido en la cláusula segunda, en cumplimiento de lo estipulado en la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco y en el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, la federación asume las siguientes obligaciones:

1.- Entregar antes del 31 de diciembre de 2025 documento acreditativo de la constitución de la comisión de deporte inclusivo.

2.- Entregar antes del 31 de diciembre de 2024 documento acreditativo de la constitución de la comisión de igualdad.

3.- Entregar antes del 31 de diciembre de 2024 el acta de sesión que recoja cuál es el órgano que asume la dirección deportiva de la federación.

4.- Entregar antes del 31 de diciembre de 2024 un plan de igualdad aprobado por la junta o por la asamblea. El plan deberá contar con un apartado específico para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo.

5.- Entregar antes del 31 de diciembre de 2025 estatutos adaptados a la nueva legislación.

6.- Entregar un protocolo de actuación para la protección integral de la infancia y la adolescencia. Además, deberán trasladar un documento que refleje quien es la persona delegada de protección nombrada.

7.- Cumplir antes del 31 de diciembre de 2024 con lo establecido en el artículo 22 de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco en materia de transparencia.

En el supuesto de incumplimiento de cualquiera de las obligaciones anteriores, la Federación perderá los siguientes porcentajes o cantidades:

A) Por el incumplimiento de cualquiera de los apartados del 1 al 3: 25 %.

B) 4. atala ez betetzeagatik: 5.000 €.

C) 5. edo 6. atalak ez betetzeagatik: 100 %.

D) 7. atala ez betetzeagatik: 50 %.

Aurreko ataletan eskatutako dokumentazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez emango da.

A), B), C), eta D) letretan aurreikusitako deskontatu beharreko ehunekoak adostutako kontraprestazio ekonomikoaren zenbatekori aplikatuko zaizkio, obligazioa betetzeko epea amaitzen den urtearen zenbatekoari buruzkoak. A), B), C), eta D) letretan aurreikusitako kontraprestazio ekonomikoaren gaineko portzentaje berberak deskontatuko dira betebeharra betetzeko epea amaitzen den urtearen ondorengo urtekoetan, federazioak dagokion betebeharra bete gabe jarraitzen badu.

Kontraprestazioa ordaindu bada, hura edo dagokion zati proportzionala itzultzeko eskatuko zaio.

Edonola ere, dagokion kopurua Foru Ogasunari itzultzeko eskaera Kirol Zerbitzuak egingo du, 6. klausulan ezarritako Jarraipen Batzordeak proposatuta.

LAUGARRENA.- Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 legearen 4.h) artikuluak hurrengoa xedatzen du; Lurralde historikoetako foru-organoei dagokie kirol-federazioak onartzea, haiei laguntzea, finantzatzea, haietan esku hartzea eta kontrolatzea beren funtzio publikoak betetzen dituztela bermatzeko, betiere beren jarduera pribatua kaltetu gabe.

Artikuluak adierazitakoarekin betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak aholkularitza eta laguntza teknikoa eskainiko dio Federazioari, betiere Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak dituen giza baliabideak eta baliabide materialak kontuan hartuta.

B) Por el incumplimiento del apartado 4: 5.000 €.

C) Por el incumplimiento de cualquiera de los apartados 5 y 6: 100 %.

D) Por el incumplimiento del apartado 7: 50 %.

La entrega de la documentación requerida en los apartados anteriores se realizará a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Los porcentajes a descontar previstos en las letras A), B), C), y D) recaerán sobre el importe de la contraprestación económica acordada, referidos al importe de la anualidad en la que finalice el plazo de cumplimiento de la obligación. Se descontarán los mismos porcentajes sobre la contraprestación económica acordada que los previstos en las letras A), B), C), y D) en las anualidades siguientes a la anualidad que finalice el plazo de cumplimiento de la obligación cuando la federación continúe sin cumplir la obligación que corresponda.

En el supuesto de que la contraprestación hubiera sido abonada, se le exigirá la devolución de esta o de la parte proporcional que corresponda.

En todo caso, el requerimiento para la devolución a la Hacienda Foral de la cantidad que corresponda se realizará desde el Servicio de Deportes, a propuesta de la Comisión de Seguimiento establecida en la cláusula 6ª.

CUARTA.- En virtud del artículo 4.h) de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, corresponde a los órganos forales la aprobación de las federaciones deportivas del territorio histórico, así como su asistencia, financiación, intervención y control para garantizar el cumplimiento de sus funciones públicas, sin menoscabo de su actividad privada.

En cumplimiento del citado precepto, la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a prestar a la Federación el asesoramiento y la asistencia técnica necesarios, de acuerdo con los medios humanos y materiales con los que cuenta el Servicio de Deportes.

Bigarren Klausulako 4. puntua bete ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiak Federaziori bere irudi korporatiboari buruzko informazio oro helaraziko dio.

**BOSGARRENA.-** Bizkaiko Foru Aldundiak (IFZ P-4800000-D), Hitzarmen honen xedearen finantzazioan parte hartuko du 2024, 2025, 2026 eta 2027. ekitaldietan, 235.000,00 €-ko guztizko zenbatekoarekin, 45100 aurrekontuko partidaren kontura, 341109 egitaraua, 0403 organikoa, 2007/0137 proiektua. Guztizko zenbateko horrek honako urtez urteko banaketa izango du:

- 2024ko ekitaldia:61.000 €

- 2025eko ekitaldia: 58.000 €

- 2026ko ekitaldia: 58.000 €

- 2027ko ekitaldia: 58.000 €

Finantzaketaren zenbateko osoa egiazkoa da, finkoa, portzentaje edo frakzio bati erreferentzia egin gabe. Beraz:

- Federazioaren kontura izango da aurkeztutako proiektua erabat gauzatzeko beharrezkoa den finantzazio-aldea.

- Justifikatutako gastua Federazioak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa baino txikiagoa izan arren, horrek ez du inolako ondoriorik izango, baldin eta emandako finantzaketaren zenbatekoa, gutxienez, behar bezala justifikatzen bada.

Gainfinantzaketarik gertatuz gero, hau da, justifikatutako gastuak diru-sarreren zenbatekoari kentzearen emaitza positiboa, Federazioak dagokion soberakina itzuli beharko du.

2024, 2025, 2026 eta 2027ko ekitaldietako ordainketa federazioak honako hauek aurkeztu ondoren izapidetuko da:

Para el cumplimiento de la Cláusula 2ª, punto 4, la Diputación Foral de Bizkaia facilitará a la Federación la información necesaria sobre su imagen corporativa.

**QUINTA.-** La Diputación Foral de Bizkaia (NIF P-4800000-D) participará en la financiación del objeto que persigue este Convenio, en los ejercicios 2024, 2025, 2026 y 2027 con un importe total de 235.000,00 €, con cargo a la partida presupuestaria 45100, programa 341109, orgánico 0403, proyecto 2007/0137. Ese importe total tendrá la siguiente distribución anual:

- Ejercicio 2024: 61.000 €

- Ejercicio 2025: 58.000 €

- Ejercicio 2026: 58.000 €

- Ejercicio 2027: 58.000 €

El importe total de la financiación tiene carácter cierto, de naturaleza fija, sin referencia a un porcentaje o fracción. Por lo tanto:

- Queda de cuenta de la Federación la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución del proyecto presentado.

- Aun cuando el gasto justificado resulte ser inferior al importe del presupuesto presentado por la Federación, ello no tendrá consecuencia alguna, siempre que se justifique debidamente, como mínimo, el importe de la financiación concedida.

En el supuesto de que se produjera sobrefinanciación, entendida como el resultado positivo derivado de la sustracción de los gastos justificados al importe de los ingresos, la Federación deberá devolver el excedente que proceda.

El abono de la cantidad correspondiente a los ejercicios 2024, 2025, 2026 y 2027 se tramitará tras la presentación por parte de la federación de:

- Batzar orokorrak behar bezala onartutako aurreko ekitaldiko kontuak.

- Uneko ekitaldiko aurrekontua, batzar orokorrak behar bezala onartuta.

- Aurreko ekitaldiko egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

Edozelan ere, gastua xedatu, obligazioa aitortu eta ekitaldi bakoitzean hitzartutako zenbatekoak ordaindu aurretik, Federazioak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera arte beteta dituela eta ez dela itzulketa egiteko ebazpenagatik zorduna egiaztatuko da.

Egindako egiaztatzearen ondorioz Federazioak lehen adierazitakoa ez duela betetzen ikusten bada, 10 eguneko epean egoera hori erregularizatzeko eskatuko zaio; eta, hala izan ezean, adostutako kontraprestazio ekonomikorako eskubidea galduko duela adieraziko zaio, dagokion administrazio-ebazpena eman ondoren.

<u>SEIGARRENA</u>.- Lankidetza-hitzarmen hau betetzeko egiten diren jardueren koordinazioa, kontrola eta jarraipena egiteko eta jasotako funtsen aplikazioa zuzen betetzen dela kontrolatzeko, Jarraipen-batzorde bat eratuko da.

Batzorde hori honako hauek osatuko dute:

Batzordeburua:

- Kirol Zerbitzuko buruak edo hark eskuordetzen duen pertsonak.

Kideak:

- Federazioaren 2 ordezkari, presidenteak proposatuta.

- Kirol Federatuaren Ataleko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona, Idazkari-lanak ere egingo dituena.

Batzordeko kide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute.

- Las cuentas del ejercicio anterior, debidamente aprobadas por la asamblea general.

- El presupuesto del ejercicio corriente, debidamente aprobado por la asamblea general.

- El balance de situación y la cuenta de resultados del ejercicio anterior.

En todo caso, previo a la disposición del gasto, reconocimiento de la obligación y abono de las respectivas cantidades convenidas en cada ejercicio, se comprobará que la Federación se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y que no es deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que incumple lo establecido anteriormente, será requerida para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la contraprestación económica acordada, previa la correspondiente resolución administrativa.

<u>SEXTA</u>.- De cara al ejercicio de las funciones generales de coordinación, control y seguimiento de la ejecución de las actuaciones derivadas del cumplimiento del presente Convenio de Colaboración, así como de la aplicación de los fondos recibidos, se constituirá una Comisión de seguimiento.

Dicha Comisión de Seguimiento estará integrada por:

Presidencia:

- La jefa del Servicio de Deportes o persona en quien delegue.

Vocales:

- 2 representantes de la Federación, a propuesta de su presidente.

- El jefe de la Sección de Deporte Federado o persona en quien delegue, que también realizará las funciones de Secretaría.

Todas las personas integrantes de la Comisión actuarán con voz y voto.

Batzordearen osaeran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 22. artikuluan horretarako ezarritakoa bete beharko da.

Batzordeak, nahitaez, 7 eguneko aurrerapenarekin deituta, ohiko bilera bat egingo du ekitaldi bakoitzean, Lankidetza-hitzarmen honen aldeek hartutako konpromisoak noraino bete diren ebaluatzeko, aurreko ekitaldiko memoria ontzat emateko eta, hala badagokio, egindako jarduerak zuzentzeko neurriak proposatzeko.

Horrez gain, Jarraipen-batzordeak aparteko bilera egingo du batzordeko kideetako edozeinek modu fede-emailean deialdia egiten duenean. Horretarako, bilera-eguna baino 3 egun lehenago egin behar du deialdia, eta bilerarako gai-zerrenda adierazi behar du.

Jarraipen Batzordeari buruz Hitzarmenak beren-beregi aurreikusi ez duenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko 3. atalak arautzen duen kide anitzeko organoen araubide juridikoa aplikatuko da.

**ZAZPIGARRENA.-** Hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen, Federazioak aurreko ekitaldiari dagokion memoria aurkeztu beharko du. Aurkezpena egoitza elektronikoaren bidez egingo da.

Memoriak bi atal izango ditu: ekonomiari dagokion atala eta egindako jarduerei dagokiena.

1.- Ekonomiari buruzko atalak honakoa ekarriko du:

a) Eginiko jarduerei egotzitako gastu eta sarreren egoera-orria. Gastuen eta sarreren egoera-orria egoitza elektronikoan beteko da. Nolanahi ere, federazio-lizentziek eragindako gastuak eta diru-sarrerak jaso beharko ditu.

b) Aurreko a) letran adierazitako gastuen egoera-orriko kontzeptu bakoitzeko, gastuen zerrenda sailkatu bat egingo da, hartzekoduna, agiri-zenbakia, zenbatekoa eta igorpen- zein ordainketa-eguna jasotzen dituena. Justifikazioa egiteko epea amaitzen

En la composición de la Comisión deberá darse cumplimiento a lo establecido a tal efecto por el artículo 22 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La Comisión se reunirá, obligatoriamente, convocada con una antelación de 7 días, una vez por ejercicio de forma ordinaria, para realizar la valoración de la ejecución de los compromisos adquiridos por las partes en el presente Convenio de Colaboración, para dar el visto bueno a la memoria correspondiente al ejercicio anterior y para proponer, en su caso, medidas correctoras respecto de las actuaciones ejecutadas.

La Comisión de Seguimiento se reunirá de forma extraordinaria cuando a tales efectos resulte convocada de forma fehaciente por cualquiera de sus miembros, con 3 días de antelación a la celebración de la correspondiente reunión y consignando el orden del día de la respectiva sesión.

En lo no previsto expresamente en el Convenio sobre la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la sección 3ª del capítulo II del título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**SÉPTIMA.-** Con anterioridad al 31 de marzo del ejercicio inmediatamente siguiente, la Federación deberá presentar la memoria correspondiente al ejercicio anterior. La presentación se realizará a través de la sede electrónica.

Dicha memoria constará de dos partes: una económica y otra correspondiente a las actividades realizadas.

1.- La memoria económica contendrá:

a) Estado de gastos e ingresos imputados a las actividades desarrolladas. El estado de gastos e ingresos se cumplimentará en la sede electrónica, y en todo caso, deberá contener tanto gastos como ingresos provenientes de licencias federativas.

b) Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de emisión y pago. Solo se tendrán en

den datan ordainduta dauden gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

cuenta gastos efectivamente abonados a la fecha de fin de plazo de justificación.

c) Sarreren egoera-orriko partida bakoitzeko, aurreko a) letran adierazitako diru-sarreren zerrenda sailkatu bat egingo da (diru-laguntzena eta bestelako sarrerena), zenbatekoa eta jatorria adierazten dituena.

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia.

d) Gastua eta ordainketa justifikatzeko agiriak aurkeztea.

d) Aportación de documentos justificativos del gasto y del pago.

e) Kostuak banatzeko irizpideak.

e) Indicación de los criterios de reparto de los costes.

f) Egoitza elektronikoan betetako erantzukizunpeko adierazpena.

f) Declaración responsable cumplimentada en la sede electrónica.

2.- Federazioak eskuordetutako funtzio publikoak betetzeko egindako lanen eta ekintzen berri eman beharko du, horretarako egoitza elektronikoan dagoen atala betez.

2.- La Federación deberá dar cuenta de las labores y acciones llevadas a cabo en relación con el desempeño de las funciones públicas delegadas cumplimentando el correspondiente apartado en la sede electrónica.

ZORTZIGARRENA.- Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kirol Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek federazioei buruz dituzten datuak, foru hitzarmen honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

OCTAVA.- El Servicio de Deportes del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las federaciones necesarios para la tramitación administrativa del presente convenio que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las mismas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportar los datos o documentos correspondientes.

Datu horiek honako hauek dira:

Los referidos datos son:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

Federazioak uko egiten badio administrazio honek banku-datu horiek bere kabuz egiaztatzeari, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

En caso de que la federación se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, se deberá aportar ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada.

b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kirol Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Servicio de Deportes podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregela-menduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, baita Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen honen edukia aldatzeko, nahitaezkoa izango da alderdi sinatzaileek aho batez onartzea aldaketa.

NOVENA.- La modificación del contenido del presente Convenio requerirá acuerdo unánime de las partes firmantes.

Hala ere, eta inguruabarrak kontuan hartuta, Jarraipen Batzordeak erabaki ahal izango ditu Hitzarmenean xedatutakoa benetan betetzeko beharrezkoak diren jarduerak, eta horrek ez du inola ere ekarriko Hitzarmen honen baldintzen funtsezko aldaketa.

No obstante, y atendiendo a las circunstancias concurrentes, la Comisión de Seguimiento podrá acordar las actuaciones pertinentes para el efectivo cumplimiento de lo dispuesto en el Convenio, sin que ello pueda implicar, en ningún caso, la alteración sustancial de los términos del presente Convenio.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean; hala ere, 2024ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra bitartean izango ditu ondoreak.

DÉCIMA.- El presente Convenio entrará en vigor el día de su firma, si bien sus efectos se producirán desde el 1 de enero de 2024 hasta el 31 de diciembre de 2027.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmen hau jarduerak betetzeagatik edo ebazteko arrazoiren batengatik azkenduko da.

UNDÉCIMA.- El presente Convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.

Honako hauek izango dira Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

Serán causas de resolución:

-Hitzarmenaren indarraldia amaitzea, hura luzatzeko erabakia hartu gabe.

-El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.

-Sinatzaile guztiek aho batez hala erabakitzeagatik.

-El acuerdo unánime de todas las firmantes.

-Alderdi sinatzaileetakoren batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik.

-El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguna de las firmantes.

-Epaileek deuseztasuna adierazteko emandako erabakia.

-Por decisión judicial declaratoria de nulidad.

-Legeetan aurrez ikusitako beste edozein arrazoi.

<u>HAMABIGARRENA.-</u> Era berean, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aplikatuko zaio erakundeari, baldin eta aurrekontu-ekitaldian gutxienez 100.000 euroko laguntza edo dirulaguntzak jasotzen baditu Bizkaiko Foru Aldunditik, edo urteko diru-sarrera guztien % 40 foru-laguntza edo dirulaguntza publikoa bada, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen badira.

<u>HAMAHIRUGARRENA.-</u> Datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu behar den araubidea manu hauetan ezartzen da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO aurrerantzean) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena (DBEDBLO aurrerantzean).

Egin behar den datu pertsonalen tratamenduaren deskripzio orokorra:

Hitzarmen hau dela bide, alderdi biek behean adierazten diren rolak eta erantzukizunak bereganatzen dituzte, eta DBEOn eta DBEDBLOn ezarritako eta aplikatu beharreko estipulazioak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

a) Federazio sinatzailea beherago adierazitako partidaren konturako diru ekarpena kudeatzeko behar diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna izango da. Hona partida: 45100 aurrekontuko partida, 341109 programa, 0403 organikoa, 2007/0137 proiektua.

b) Kirolen Zuzendaritza Nagusia (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saila), berriz, Federazio sinatzailearen arduradunekin/ordezkariekin harremanetan jartzeko datuen tratamenduaren arduraduna izango da. Tratamendua beharrezkoa izango da, bai Hitzarmen hau idazteko, bai datuon derrigorrezko zaintzarako. Kirolen Zuzendaritza Nagusiak DBEDBLOren 19.3 artikuluak ematen dion legezkotasunean oinarrituta egingo du tratamendu hori.

-Por cualquier otra causa prevista en las leyes.

<u>DUODÉCIMA.-</u> Será igualmente de aplicación a la entidad la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia si durante el ejercicio presupuestario percibe de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

<u>DÉCIMOTERCERA.-</u> El régimen de protección de datos personales aplicable es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en adelante, “RGPD”), y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales (en adelante, “LOPDGDD”).

Descripción general del tratamiento de datos personales a efectuar:

Ambas partes adquieren los siguientes roles y responsabilidades en virtud del presente Convenio y se comprometen para tal fin a cumplir con las estipulaciones establecidas en el RGPD y en la LOPDGDD que le sean de aplicación.

a) La Federación firmante: tendrá la consideración de Responsable del Tratamiento de los datos personales que sean necesarios tratar para la gestión de la aportación dineraria derivada de la partida presupuestaria 45100, programa 341109, orgánico 0403, proyecto 2007/0137.

b) La Dirección General de Deporte (Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia): tendrá la consideración de Responsable del Tratamiento para tratar los datos de contacto de los y las responsables/ representantes de la Federación firmante necesarios para la redacción del presente Convenio, así como para la subsiguiente y obligada custodia de los mismos. La Dirección General de Deporte realizará el referido tratamiento

en base a la legitimación que le otorga el artículo 19.3 de la LOPDGDD.

Hitzarmen honen bidez ez da artikulatzen alderdien artean DBEOren 26. artikuluan ezarritako erantzunkidetasun harremaneko bat ere; izan ere, alderdiek ez dituzte elkarrekin ezartzen ez helburuak, ez eta Hitzarmenaren bidez aurreikusten diren tratamenduak ere.

El presente Convenio no articula entre las partes ninguna relación de corresponsabilidad de las contempladas en el artículo 26 del RGPD puesto que las partes no determinan conjuntamente los objetivos y los medios de los tratamientos que por medio del Convenio se prevén.

Halaber, Hitzarmen honek ez du artikulatzen alderdien artean tratamenduaren arduradunen eta tratamendu-eragileen arteko harremanik, DBEOren 28. artikuluarekin bat; izan ere, alderdietako batek ere ez du bestearen konturako datu pertsonalik tratatzen.

El presente Convenio, tampoco articula entre las partes una relación de responsables y encargadas del tratamiento conforme al artículo 28 del RGPD puesto que ninguna de las partes trata datos personales por cuenta de la otra.

Hitzarmen honen I. Eranskinean (Alderdien konpromisoak) zehatuta daude datu pertsonalen babesaren arloan indarrean den araudia betetzeko alderdiek hartzen dituzten konpromisoak.

Los compromisos de las partes para el cumplimiento de la normativa vigente en materia de protección de datos personales se especifican en el Anexo I “Compromisos de las partes” del presente Convenio.

<u>HAMALAUGARRENA.-</u> Bi alderdiak Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren tartekaritzaren pean jarri dira, Hitzarmen hau sinatzeren ondoriozko loturaren interpretazioan sortu litezkeen zalantza guztiak interpretatzeko.

<u>DÉCIMOCUARTA.-</u> Ambas partes se someten al Arbitraje del Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia en aras a la interpretación de cuantas dudas pudieran surgir en la interpretación del nexo que se deriva de la firma del presente Convenio.

Hitzarmen honetan auzigairik sortzen bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira, izaera juridiko-administratiboa baitute halakoek.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente Convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Lankidetza-hitzarmen hau irakurri ondoren, egilesleek haren edukia berretsi eta baieztatu dute. Adostasunaren erakusgarri, akordioa sinatu dute adierazitako leku eta egunean.

Tras la lectura del presente Convenio de Colaboración las partes otorgantes se ratifican y afirman en su contenido, y en prueba de conformidad, lo firman en el lugar y fecha indicados.

**Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua/Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte**

**Leixuri ARRIZABALAGA ARRUZA**

**Federación Atlética Vizcaína/Bizkaiko Atletismo Federazioa Presidentea/Presidente**

**Ander SALINERO MUGICA**

# I. ERANSKINA: DATU PERTSONALEN BABESAREN ARLOAN INDARREAN DEN ARAUDIA BETETZEKO ALDERDIEK HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK ANEXO I: COMPROMISOS DE LAS PARTES PARA EL CUMPLIMIENTO DE LA NORMATIVA VIGENTE EN MATERIA DE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

Datu pertsonalen babesaren arloan indarrean den araudia betetzeko alderdiek hartzen dituzten konpromisoak:

1. Tratamenduaren arduradun gisa, Kirolen Zuzendariza Nagusiari (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saila) honako hau dagokio bere eremuan:

Hitzarmen honi erantsi eta onestea II. eranskina,« Datu pertsonalen tratamendua », bertan jasotzen diren *ad hoc* jarraibideekin. Haien bidez, zehatz adierazten da Kirolen Zuzendaritza Nagusiak tratamenduaren arduradun gisa zer datu pertsonal babestu behar dituen, datuen zer tratamendu egin behar den, tratamendua zertarako den eta zer neurri ezarri behar diren.

2. Tratamenduaren arduradun bakoitzari honako hauek dagozkio bere jarduketa-eremuan:

a) Datu pertsonalen tratamenduarekin lotuta erabakitzen dituen jarduerak baimentzea.
b) Aurretik zaintzea, tratamenduan zehar kontrolatzea eta *a posteriori* ikuskatzea datuen babesari buruzko araudia betetzen dela.
c) Araudiarekin bat egin beharreko tratamendu-eragiketetako datu pertsonalen babesari buruzko ikuskapenak, auditoriak eta eragin-ebaluazioak egitea.
d) Beharrezkoak diren aurretiazko kontsultak egitea.

Compromisos de las partes para el cumplimiento de la normativa vigente en materia de protección de datos personales:

1. Corresponde a la Dirección General de Deporte (Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia) en su respectivo ámbito como Responsable del Tratamiento:

Incorporar al presente convenio el Anexo II “Tratamiento de datos personales” con las instrucciones ad hoc que especifica y detalla los datos personales a proteger por la Dirección General de Deporte en virtud de su consideración de responsable del tratamiento, así como el tratamiento de datos a realizar, su finalidad y demás medidas a implementar.

2. Corresponde a cada responsable del tratamiento en su respectivo ámbito de actuación:

a) Autorizar las actividades de tratamiento de datos personales que determine.
b) Velar de forma previa, controlar durante el tratamiento y supervisar a posteriori el cumplimiento de la normativa en materia de protección de datos.
c) Realizar las inspecciones, auditorías y evaluaciones de impacto en protección de datos personales de las operaciones de tratamiento que correspondan de acuerdo con la normativa.
d) Realizar las consultas previas que en su caso, correspondan.

e) Datu pertsonalak DBEOren 32. artikuluan xedatutako segurtasun-irizpideekin eta edukiarekin bat tratatzea, eta eskura diren datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo gomendagarriak diren segurtasun arloko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak zaintzea eta hartzea. Aurrekoa, hain zuzen, bat dator Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen duen 2022ko maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan ezarritako informazio-sistemen kategorizazioarekin eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin.

f) Hitzarmena gauzatzeko eskuratzen dituzten datu pertsonalen erabateko konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta haien tratamenduaren ondorioz eskuratzen dituztenena ere, datuok lortu diren euskarria dena dela.

g) Betebehar horrek tratamenduaren arduradunaren kontura tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten pertsona guztiak lotzen ditu. Orobat, pertsona horiek beren mendekotasun organiko edo/eta funtzionaleko pertsonei irakatsi behar diete sekretu-eginbeharra gorde behar dutela eta hura gordetzen jarraitu behar dutela jardueraren prestazioa badago ere edo jarduerarekiko lotura galdu badute ere.

h) Datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonen zerrenda bat eramatea, eta bermatzea pertsona horiek berariaz idatzizko konpromisoa hartzen dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko —zeinen berri eman beharko duten—.

i) Tratamendua egiteko baimendutako pertsonek datu pertsonalen babesaren arloko prestakuntza egokia dutela bermatzea.

j) Datu pertsonalak ez komunikatzea (lagatzea) edo zabaltzea hirugarren batzuei, datuak kontserbatzeko denean ere ez, legez ezarritako kasuetan izan ezik.

k) Hala dagokionean, jakinaraztea tratamenduaren arduradun bakoitzak datu pertsonalen babesaren ondorioetarako izendatu duen/dituen pertsona fisikoaren edo fisikoen identitatea eta harremanetarako datuak, hau da, datu pertsonalen

e) Tratar los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y el contenido previsto en el artículo 32 del RGPD, así como observar y adoptar las medidas técnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tenga acceso. En particular, se correspondería con la categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo con el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad.

f) Mantener la más absoluta confidencialidad sobre los datos personales a los que tenga acceso para la ejecución del convenio así como sobre los que resulten de su tratamiento, cualquiera que sea el soporte en el que se hubieren obtenido.

g) Esta obligación se extiende a toda persona que pudiera intervenir en cualquier fase del tratamiento por cuenta de cada Responsable del tratamiento siendo asimismo deber de éstos instruir a las personas que estén bajo su dependencia orgánica y/o funcional, acerca del deber de secreto, y del mantenimiento de dicho deber aún después de la terminación de la prestación de la actividad o de su desvinculación.

h) Llevar un listado de personas autorizadas para tratar los datos personales y garantizar que las mismas se comprometen, de forma expresa y por escrito, a respetar la confidencialidad, y a cumplir con las medidas de seguridad correspondientes, de las que les debe informar convenientemente.

i) Garantizar la formación necesaria en materia de protección de datos personales de las personas autorizadas a su tratamiento.

j) No comunicar (ceder) ni difundir los datos personales a terceras personas, ni siquiera para su conservación salvo en supuestos legalmente habilitados.

k) En su caso, comunicar la identidad y datos de contacto de la(s) persona(s) física(s) designada(s) por cada responsable del tratamiento a efectos de protección de los datos personales, esto es, la identidad de las persona (s) responsable(s) del

tratamenduari buruzko araudia arlo legal eta formalean eta segurtasun arloan betetzen dela zaintzeaz arduratuko den pertsonaren identitatea.

l) Tratamendua amaitu ondoren alderdi biek honako hauek suntsitzeko konpromisoa hartzen dute, salbu eta lege batek edo Europar Batasuneko zuzenbideko arau batek baimendu edo eskatzen duenean:

1) hitzarmena dela-bide eskuratu diren datu pertsonalak eta datu horiek dauden euskarriak eta dokumentuak, haien kopiarik gorde gabe, baldin eta dagoeneko beharrezkoak ez badira eskatu ziren helburuetarako.

2) Baina tratamenduaren arduradun biek kontserbatu ahal izango dituzte haietako bakoitzak bestearekiko duen harremanaren ondorioz erantzukizunak sor daitezkeen bitartean. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta kontserbatuko dira, beharrezkoa den denboran bakarrik, eta modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira, epe hori amaitu bezain laster.

m) Halaber, DBEOren 33. artikuluan xedatutakoarekin bat, arduradun biek komunikatuko dute —bakoitzak bere erantzukizuneko eremuaren barruan, eta, beharrezkoa bada, eskumeneko kontrol-agintariari— beren erantzukizunpean gertatu den eta ezagutu duten datu pertsonalen segurtasuneko edozein urraketa, berehala, gehienez ere 72 orduan. Horrez gainera, garrantzizko informazioa emango dute informazioaren tratamendu- eta kudeaketa-sisteman izan den edozein gorabehera edo huts-egite —datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen duena edo jar dezakeena— dokumentatzeko eta informatzeko. Eta, azkenik, dagokion negozio juridikoa gauzatu bitartean lortutako datuak eta informazioak hirugarren batzuei ezagutzera ematearen ondorioz konfidentzialtasunean izandako edozein urraketaren berri emango dute.

cumplimiento de la regulación del tratamiento de datos personales, en las vertientes legales/formales y en las de seguridad.

l) Una vez finalizado el convenio ambas partes se comprometen a destruir, salvo que se permita o requiera por ley o por norma de derecho comunitario su conservación:

1.º los datos personales, los soportes y los documentos en que cualquiera de estos datos consten, sin conservar copia alguna, a los que se haya tenido acceso en virtud del presente convenio siempre que éstos hayan dejado de ser necesarios respecto a los fines que fueron recabados.

2.º Ambos Responsables del Tratamiento podrán, no obstante, conservar los datos durante el tiempo que puedan derivarse responsabilidades de su relación con el otro Responsable del Tratamiento. En este último caso, los datos personales se conservarán bloqueados y por el tiempo mínimo, destruyéndose de forma segura y definitiva al final de dicho plazo.

m) De conformidad con el artículo 33 RGPD, comunicarán en su respectivo ámbito de responsabilidad y en caso de ser necesario a la autoridad de control competente de forma inmediata y a más tardar en el plazo de 72 horas, cualquier violación de la seguridad de los datos personales bajo su responsabilidad de la que tengan conocimiento, juntamente con toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia o cualquier fallo en su sistema de tratamiento y gestión de la información que hayan tenido o puedan tener que ponga en peligro la seguridad de los datos personales, su integridad o su disponibilidad, así como cualquier posible vulneración de la confidencialidad como consecuencia de la puesta en conocimiento de terceras personas de los datos e informaciones obtenidos durante la ejecución del negocio jurídico correspondiente.

Horri buruzko informazio xehatua jakinaraziko dute, bizkor, zehatza adierazita zer pertsonak jasan duten konfidentzialtasun-galera bat.

Comunicarán con diligencia información detallada al respecto, incluso concretando qué personas interesadas sufrieron una pérdida de confidencialidad.

n) Indarrean den araudiak eskatzen duen moduan erantzutea pertsona fisiko batek datuen babesaren arloko eskubideetako bat erabiltzeko eskaerei (datuetan sartu, datuok zuzendu, aurkaratu, ezabatu edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea, eta erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izan, edo aplikatu beharreko araudiak aitortutako beste edozein).

n) Atender conforme exige la normativa vigente cada supuesto en el que una persona física ejerza uno de los derechos en materia de protección de datos (acceso, rectificación, supresión y oposición, limitación del tratamiento y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas, u otros reconocidos por la normativa aplicable).

o) Haietako bakoitzak betetzea segurtasun-neurrien arloko betebeharrak zein segurtasun-neurrien arrakalak (lortuak zein saiatu direnak) agintaritza eskudunei eta interesdunei komunikatu eta/edo jakinarazteko betebeharrak; horrez gainera, eragin-ebaluazioak egiten laguntzea.

o) Cumplir con sus respectivas obligaciones en materia de medidas de seguridad, comunicación y/o notificación de brechas (logradas e intentadas) de seguridad a las autoridades competentes o las personas interesadas, y realizar, en su caso, las evaluaciones de impacto que sean pertinentes.

p) DBEOren 30.2 artikuluarekin bat, idatziz eramatea —bai eta formatu elektronikoan ere— egindako tratamenduko jardueren kategoria guztiak biltzen dituen erregistro bat, gutxienez artikulu horretan adierazitako inguruabarrak jasoko dituena. Ildo horretan, erregistroak informazio hau jasoko du:

1) Hitzarmena sinatu duen beste pertsona fisiko edo juridikoaren izena eta harekin harremanetan jartzeko datuak.
2) Eginiko tratamenduen kategoriak.
3)Segurtasun arloko neurri teknikoen eta antolaketa-arlokoen azalpen bat, halako neurririk hartu behar bada, alderdi hauekin lotutakoak:

- Datu pertsonalen pseudonimizazioa eta zifratzea.
- Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia etengabe bermatzeko gaitasuna.
- Arazo fisiko edo tekniko bat gertatzen denean datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea arin berreskuratzeko gaitasuna.

p) Llevar, por escrito, incluso en formato electrónico, y de acuerdo con el artículo 30.2 del RGPD un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas que contenga, al menos, las circunstancias a que se refiere dicho artículo. En este sentido, este registro contendrá la siguiente información:

1.º Nombre y datos de contacto de la persona física o jurídica con la que se realice el convenio.
2.º Categorías de tratamientos efectuados.
3.º Una descripción de las medidas técnicas y organizativas de seguridad, en caso de que proceda su aplicación, relativas a:

- Seudonimización y el cifrado de datos personales.
- La capacidad de garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.
- La capacidad de restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.

- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa arlokoen eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesua.

- El proceso de verificación, evaluación y valoración regulares de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.

q) Datuen babesari buruzko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen direlako ebidentziak izatea.

r) Informazio-eskubidea: Datuak biltzen direnean, egingo diren datuen tratamenduei buruzko informazioa eman behar dute tratamenduaren arduradun biek.

s) Hitzarmenaren hamaikagarren klausulan ezarritako datuen babesaren arloko betebeharrek, eranskin honek eta II. eranskinak («Datu pertsonalen tratamendua »), haiek guztiek arautzen dute hitzarmen honi lotutako datu pertsonalen tratamendua. Eranskin honetan adierazitako betebeharrak eta prestazioak direla-eta ez da dirurik ordainduko, hitzarmenean aurreikusitakoaz gainerakorik, eta hitzarmenaren xede den prestazioaren iraupen bera izango dute. Gainera, hitzarmena luzatuz gero, neurri berean luzatuko dira haiek ere. Dena den, hitzarmena amaituta ere, sekretu-eginbeharrak indarrean iraungo du, denbora-mugarik gabe, prestazioa gauzatzen aritu diren pertsona guztien kasuan.

t) Hitzarmena formalizatuta dagoela, hura gauzatu bitartean beharrezkoa balitz II. eranskinean (« Datu pertsonalen tratamendua ») hizpatutakoa aldatzea edo egokitzea, orduan, Kirolen Zuzendaritza Nagusiak adieraziko luke zer alderdi aldatu edo egokitu behar diren. Entitatea eskatu denarekin ados egonez gero, II. eranskin (« Datu pertsonalen tratamendua ») eguneratu bat emango litzateke, tratamenduaren zehaztasun guztiak fideltasunez jasoko lituzkeena.

q) Disponer de evidencias que demuestren su cumplimiento de la normativa de protección de datos personales y del deber de responsabilidad activa.

r) Derecho de información: Ambos responsables del tratamiento en el momento de la recogida de los datos, deben facilitar la información relativa a los tratamientos de datos que se van a realizar.

s) La cláusula undécima del convenio y las obligaciones en ella establecidas, así como el Anexo II "Tratamiento de datos personales" constituyen el acto jurídico que regula el tratamiento de datos personales que se articula en torno al presente Convenio. Las obligaciones y prestaciones que aquí se contienen no son retribuibles de forma distinta u adicional a lo previsto en este convenio y tendrán la misma duración que la prestación objeto de este convenio prorrogándose en su caso por períodos iguales a éste. No obstante, a la finalización del convenio el deber de secreto continuará vigente, sin límite de tiempo, para todas las personas involucradas en la ejecución de la prestación.

t) Si una vez formalizado el convenio y durante la ejecución del mismo resultara necesario modificar o adaptar lo estipulado en el Anexo II "Tratamiento de datos personales", la Dirección General de Deporte señalará los cambios que solicita modificar o adaptar. En caso de que la entidad esté de acuerdo con lo solicitado, se emitiría un Anexo II "Tratamiento de datos personales" actualizado, de modo que el mismo siempre recoja fielmente el detalle del tratamiento.

# II. ERANSKINA: DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA
# ANEXO II: TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Kirol Zerbitzuko eremu organikoari edo funtzionalari atxikitako langileek edo eremu horietako langileek datu pertsonalak tratatu ahal izango dituzte, hitzarmenak helburu dituen zerbitzuak emateko. Atxikitako langileek baino ez dituzte tratatuko datu pertsonalak, eta hitzartutakoa betetzeko baino ez.

El personal adscrito o perteneciente al ámbito orgánico o funcional del Servicio de Deportes, para proporcionar los servicios objeto del convenio, puede tratar datos personales. Los datos personales se tratarán únicamente por este personal adscrito y con el único fin de efectuar el alcance conveniado.

## *BFA-REN HITZARMENETAKO DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA*
## *INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS EN CONVENIOS DE DFB*

## *EB-REN 2016/679 ERREGELAMENDUA, DATUEN BABESARI BURUZKOA, ETA DATUAK BABESTEKO ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKO 3/2018 LO / REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018*

### Tratamenduaren arduraduna eta helbidea / Responsable del tratamiento y contacto

Kirolen Zuzendaritza Nagusia (Euskara, Kultura eta Kirol Saila)
Rekalde zumarkalea 30, 1, 48009-BILBO (Bizkaia)

Dirección General de Deporte (Departamento de Euskera, Cultura y Deporte)
Alameda Recalde, 30, 1, 48009 BILBAO, Bizkaia

### Datuen babesaren arloko ordezkaria / Persona delegada de Protección de Datos

Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko burua (Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila).
Kale Nagusia, 2 6a – 48001 Bilbo.

Jefatura de la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos (Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales).
Gran Vía, 2 6º – 48001 Bilbao

### Interesdunaren eskubideak / Derechos de la persona interesada

Interesdunak tratamenduaren arduradunaren aurrean balia ditzake bere datuetan sartu, datuok zuzendu, aurkaratu, ezabatu edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea, eta erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izan; horretarako, idazki bat bidali behar dio Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari, helbide honetara:
BFAren egoitza elektronikoa:
https://www.ebizkaia.eus

- Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Nagusia (Laguntza Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoa: Diputazio kalea, 7, 48008, Bilbo)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren herritarrei laguntzeko eskualde-bulegoak.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren sailetako erregistro nagusiak.
- 39/2015 Legean adierazitako lekuetan.

La persona interesada puede ejercer ante la persona Responsable de tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos en:
Sede electrónica de la DFB:
https://www.ebizkaia.eus

- Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia (Oficina de Registro y Atención Ciudadana Laguntza: C/ Diputación, 7- 48008 Bilbao)
- Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Registros Generales Departamentales de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Lugares previstos en la Ley 39/2015.

Horrez gainera, interesdunak eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko (hau da, Datuak Babesteko Euskal Agintaritza).

La persona interesada dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente. (Autoridad Vasca de Protección de Datos).

## Tratamenduaren helburua / Finalidad del tratamiento

Hitzarmena dela-eta egin behar den datuen tratamendua hau da:

- Alderdi sinatzaileen legezko ordezkariekin harremanetan jartzeko datuak hitzarmena idazteko erabili behar dira; ondoren, haien zaintza egin behar da. Tratamenduaren jatorria da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Atletismo Federazioaren arteko lankidetza hitzarmena, 2024, 2025, 2026 eta 2027 aldian funtzio publiko-administratiboak garatzeko.

El tratamiento de datos que se deriva del convenio consiste en:

- La utilización para la redacción del convenio y posterior custodia de los datos de contacto de las personas representantes legales de las partes firmantes. Viene originado por el Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Federación Atlética Vizcaína para el desarrollo de las funciones públicas de carácter administrativo en el período 2024, 2025, 2026 y 2027.

Datu pertsonalen tratamendu horiek egiteko, erakunde hauek daude:

- Kirolen Zuzendaritza Nagusia (Euskara, Kultura eta Kiroleko Saila), hitzarmenaren sinatzaile eta tratamenduaren arduraduna den aldetik.
- Bizkaiko Atletismo Federazioa, hitzarmenaren sinatzaile eta tratamenduaren arduraduna den aldetik.

Para la realización de estos tratamientos de datos personales figuran:

- La Dirección General de Deporte (Departamento de Euskera, Cultura y Deporte) en calidad de parte del convenio y responsable del tratamiento.
- La Federación Atlética Vizcaína, en calidad de parte del convenio y responsable del tratamiento.

## Datuen tratamenduaren arloko jarduerak / Actividades del tratamiento de datos

Datu pertsonalen tratamenduaren arloan, jarduera hauek egingo dira:/ El tratamiento de los datos personales comprenderá:

| | |
|---|---|
| Datuak atzitzea. / Captura de datos. | X |
| Datuak grabatzea. / Grabación de datos. | X |
| Datuak egituratzea. / Estructuración de datos. | X |
| Datuak aldatzea. / Modificación de datos. | |
| Interesdunekin harremanetan jartzea./ Puesta en contacto con personas interesadas. | X |
| Datuak biltegiratzea. / Almacenamiento de datos. | X |
| Datuak erauztea (berreskuratzea). / Extracción de datos (recuperación). | |
| Datuak kontsultatzea. / Consulta de datos. | X |
| Datuak lagatzea/zabaltzea. / Cesión/difusión de datos. | |

| | |
|---|---|
| Datuen interkonexioa (gurutzatzea). / Interconexión (cruce) de datos. | |
| Datuak erkatzea (egiaztatzea). / Cotejo (comprobación) de datos. | |
| Datuak suntsitzea. / Destrucción de datos. | X |
| Datuak kontserbatzea tratamendu-eragilearen informazio-sistemetan./ Conservación de datos en sistemas de información del encargado del tratamiento. | X |
| Datuen aldi baterako kopiak./ Copias temporales de datos. | |
| Datuen segurtasun-kopiak, datuak berreskuratzea./ Copias de seguridad de los datos, recuperación de datos. | X |
| Beste batzuk: hitzarmena betetzeko prestazioetan zehar sortutako gainerakoak./ Otros: y todos aquellos generados durante las prestaciones derivadas del cumplimiento del convenio. | X |

**Tratamenduaren legitimazioa / Legitimación del tratamiento**

1. DBEDBLOren 19.3 artikulua.
2. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena.
3. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Atletismo Federazioaren arteko lankidetza hitzarmena, 2024, 2025, 2026 eta 2027 aldian funtzio publiko-administratiboak garatzeko.

1. Art 19.3 LOPDGDD.
2. Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.
3. Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Federación Atlética Vizcaína para el desarrollo de las funciones públicas de carácter administrativo en los ejercicios 2024, 2025, 2026 y 2027.

**Datu pertsonalen kategoriak / Categorías de datos personales**

| IDENTIFIKAZIO-DATUAK / DATOS IDENTIFICATIVOS: | |
|---|---|
| NANa/IFZ/identifikazio-agiri ofiziala. D.N.I. /N.I.F./Documento de Identificación Oficial. | X |
| Izen-abizenak/ Nombre y Apellidos. | X |
| Posta helbidea/ Dirección postal. | X |
| Telefonoa/Teléfono. | X |
| Sinadura/ Firma. | X |
| Nazionalitatea/ Nacionalidad. | X |
| Jaiotze-data/Fecha Nacimiento. | X |
| Jaioterria/Lugar de nacimiento. | X |

| | |
|---|---|
| Adina/Edad. | |
| Egoera zibila/Estado Civil. | |
| Helbide elektronikoa/Correo electrónico. | X |
| Sexua/Sexo | X |
| Gizarte Segurantzaren zenbakia/Nº de la Seguridad Social. | |
| Irudia (argazkiak edo bideoak)/Imagen (Fotografías o videos) | |
| Soinuak (audio-grabazioak)/Sonidos (Grabaciones de audio). | |
| Sare sozialak (profila Twitter, Facebook eta Instagramen, besteak beste)/ Redes Sociales (Perfil Twitter, Facebook, Instagram, entre otros). | |
| Seme-alaben kopurua/Número de hijos o hijas. | |
| Ezaugarri pertsonalak (altuera, pisua , talla besteak beste) / Características personales (Altura, peso, talla, entre otros). | |
| Beste batzuk (zehaztu)/Otros (especificar). | |
| OTRO TIPO DE DATOS / BESTE DATU MOTA BATZUK | |
| Prestakuntza-datuak (titulu akademikoak, diplomak eta beste batzuk)/ Datos de formación (Títulos, Académicos, diplomas, entre otros). | |
| Esperientzia edo historial profesionala/ Experiencia o Historial profesional. | |
| Lanbidea/Profesión. | |
| Lanpostua edo kategoria profesionala/ Puesto de trabajo o categoría profesional. | |
| Lizentziak, baimenak/Licencias, permisos o autorizaciones. | |
| Elkarteetako, klubetako eta gisako beste erakundeetako kide izatea/ Pertenencia a Asociaciones, Clubes, entre otros. | X |
| Jabetzak edo edukitzak/Propiedad o posesiones. | |
| Datu ekonomikoak, finantza-datuak eta aseguruei buruzkoak (banku-datuak, kontu korrontea, txartel-zenbakia, tributuei buruzko datuak, soldatak, sorospenak, eta abar)/ Económicos, Financieros y de Seguros (Datos Bancarios, Cuenta Corriente, Número de Tarjeta, Datos sobre Tributos, Sueldos, Subsidios, entre otros). | |
| Merkataritza-informazioarekin lotutako datuak (jarduerak, negozioak, eta abar)./ Datos de información comercial (Actividades, Negocios, entre otros). | |
| Transakzioei buruzko datuak (interesdunak eskainitako ondasunak edo zerbitzuak, interesdunak jasotako ondasunak edo zerbitzuak, eta abar)/ Datos de transacciones (Bienes o servicios ofertados por la persona interesada, bienes o servicios recibidos por la persona interesada, entre otros). | |
| Arau-hauste administratiboei buruzko datuak./ Datos sobre infracciones administrativas. | |
| Arau-hauste penalei buruzko datuak./Datos sobre infracciones penales. | |
| Beste batzuk (zehaztu). Otros (especificar). | |

| DATUEN KATEGORIA BEREZIAK (DBEOren 9. art.)<br>CATEGORÍAS ESPECIALES DE DATOS (art. 9 RGPD) | |
|---|---|
| Etnia edo arraza./ Origen étnico o racial. | |
| Iritzi politikoak./ Opiniones políticas. | |
| Erlijio edo filosofiako sinesmenak / Convicciones religiosas o filosóficas. | |
| Afiliazio sindikala./Afiliación sindical. | |
| Datu genetikoak / Datos genéticos. | |
| Pertsona fisiko bat zalantzarik gabe identifikatzera zuzendutako datu biometrikoak /<br>Datos biométricos dirigidos a identificar de manera unívoca a una persona física. | |
| Osasunari buruzko datua k/ Datos relativos a la salud. | |
| Sexu-ohiturei edo -orientazioari buruzko datuak./<br>Datos relativos a la vida sexual o la orientación sexual. | |

**Interesdunen kategoriaren deskripzioa/ Descripción de la categoría de personas interesadas**

Interesdunen kategoriak, zeinen datuak tratatuko diren/
Categorías de personas interesadas cuyos datos van a ser tratados:

| | |
|---|---|
| Herritarrak./Ciudadanía. | |
| Adingabeak (14 urte, DBEDBLOren 7. art.)/Menores (14 años, art 7 LOPDGDD). | |
| 65 urtetik gorakoak./Personas mayores de 65 años. | |
| Egoiliarrak./Personas Residentes. | |
| Bezeroak./Personas Clientes. | |
| Hornitzaileak./Personas Proveedoras. | |
| Bazkideak edo kideak./Personas Asociadas o Miembros. | |
| Jabeak edo errentariak./Personas Propietarias o Arrendatarias. | |
| Ikasleak./Personas Estudiantes. | |
| Legezko ordezkariak./Personas Representantes Legales. | X |
| Harremanetarako pertsonak./Personas de Contacto. | X |
| Eskatzaileak./Personas Solicitantes. | |
| Onuradunak./Personas Beneficiarias. | |
| Langileak./Personas Trabajadoras. | |
| Enplegu-eskatzaileak./Personas Demandantes de Empleo. | |
| Kargudun publikoak./Personas con Cargos Públicos. | |

**Datuen jatorria/ Origen de los datos**

Datuen jatorria hau da/ Los datos personales tratados proceden de:

| | |
|---|---|
| Interesdunak eurak edo haien ordezkariak.<br>Propias personas interesadas o su representante | X |

| | |
|---|---|
| Herri Administrazioak; Bizkaiko Foru Aldundia<br>Administraciones Públicas; Diputación Foral de Bizkaia | |
| Erregistro publikoak (zehaztu):<br>Registros Públicos *(Especificar)*: | |
| Sektore publikoko beste entitate batzuk (Zehaztu):<br>Otras entidades del Sector Público *(Especificar)*: | |
| Beste batzuk (zehaztu):<br>Otras (Especificar): | |

**Datuen hartzaileak / Personas destinatarias de los datos**

Ez zaie datu pertsonalik komunikatu behar hirugarren batzuei./
No hay comunicación de datos personales a terceras personas.

**Datuak kontserbatzeko epea/ Plazo de conservación de los datos**

| | |
|---|---|
| Hitzarmenean eta aplikatu behar den arloko araudian ezarritako betebehar guztiak betetzeko behar den denboran kontserbatuko dira; hain zuzen, hitzarmenaren indarraldi osoan zehar, eta, ondoren, legezko betebehar guztiak bete arte eta sor litezkeen era guztietako erantzukizunak iraungitzeko epea amaitu arte. | Se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con todas las obligaciones recogidas en el convenio y en la normativa aplicable en la materia, que se extiende durante todo su período de vigencia y posterior cumplimiento de obligaciones legales y vencimiento del plazo de prescripción de la extinción de las responsabilidades de toda índole que pudieran acaecer. |

**Zer egin datuekin tratamendua amaitu ondoren/**
**Disposición de los datos al terminar el tratamiento de datos**

| | |
|---|---|
| Salbu eta lege batek edo Europar Batasuneko zuzenbideko arau batek baimendu edo eskatzen duenean, tratamendua amaitu ondoren, | Una vez finalice el tratamiento debe, salvo que se permita o requiera por ley o por norma de derecho comunitario su conservación, destruir: |
| - Hitzarmena dela-bide eskuratu diren datu pertsonalak eta datu horiek dauden euskarriak eta dokumentuak suntsitu behar dira, haien kopiarik gorde gabe, baldin eta dagoeneko beharrezkoak ez badira eskatu ziren helburuetarako. | - Los datos personales, los soportes y los documentos en que cualesquiera de estos datos consten, sin conservar copia alguna, a los que se haya tenido acceso en virtud del presente convenio siempre que éstos hayan dejado de ser necesarios respecto a los fines que fueron recabados. |
| - Baina tratamenduaren arduradunak kontserbatu ahal izango ditu tratamenduaren beste arduradunarekiko duen harremanaren ondorioz erantzukizunak sor daitezkeen bitartean. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta kontserbatuko dira, beharrezkoa den denboran bakarrik, eta modu | - Podrá, no obstante, conservar los datos durante el tiempo que puedan derivarse responsabilidades de su relación con el otro Responsable del Tratamiento. En este último caso, los datos personales se conservarán |

| | |
|---|---|
| seguruan eta behin betiko suntsituko dira, epe hori amaitu bezain laster. | bloqueados y por el tiempo mínimo, destruyéndose de forma segura y definitiva al final de dicho plazo. |
| **Segurtasun arloko neurri teknikoen edo antolaketa-neurrien azalpen orokorra/ Descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad** | |
| Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien aplikazioa, Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen duen 2022ko maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuarekin bat. | Categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo con el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad. |